

Baditugu, egia erran, guk ere horrelako «euskaltzaleak» beren «txokokerietan» galduak, beren «txokoko» zedarrietarik hara ez baitute deus jakin nahi, «chakhurra» eta «gathüa» idatziko dizutenak, berek hori baizik ezpaitzuten ikasi. Bainan holakoak, «inkulturaren semeak», badoaz, Jainkoari esker. Gaur Iparralde honetako gehienek, egiazko batasuntzaleek, badakigu mugaren gainetik behatzen eta egiazko batasunaren altxorrera nahi genuke, guk ere, gure apalean gure idazle bakar batzuen ezitia edo mamia ekarri. Hor ditugu eta Etxepare zaharra eta berria, Etxeberri biak, Leizarraga eta Axular, Hiribarren eta Duvoisin, Oxobi, Mirande eta Lafitte... Gutiz ez utz, adiskideak.

Jakin ere dut bestalde eta nere begiz ikusi, zuen artean agertzen duzuen euskal jakintsu handienaren izena, izen horren ja-beak berak ukatu zizuela. Horrelako egitate itsusia ez zuen aita Kardaberaz doneak lapurketa deitzen? Jaungoikoaren VII. mandamentuak «lapurketak», «ohointzak» eta «hold-up» mota guztiak debekatzen eta eragozten dituela ahantzi ote duzue, jaun ohargarriak?... Barka ausartzia.

Azkenekoz aitortu behar dizuet, zuetarik bati, Elorrioko jaun agurgarriari, harrigarriak entzun dizkiodala erraiten Bilboko Irratitik joan den udazkenean. «Berrogei urtetako diktaturak baino kalte gehiago egin omen dio «euskara batuak» gure euskarari...» Mesedez, Don Jaime, astakeria handiegirik ez otoi jalgi xokotik. Entzuten zaitugu Baionatik. ■ *Piarres Xarritton.*

Hordago, «klasiko» deituak

Joan den urteak euskal kulturaren eman duen obra pozgarrienetakoa, hamazazpi «klasiko» deitzen berrargitalpena izan da, HORDAGO egina. Seinalagarria eta eskergarria. Bestela betikoan gunden: klasikoak, Voltairek esan zenez, irakurtzeko baino, liburu apaletan gordeta edukitzeko dira, hautsak estalita. Euskal klasikoak, ordea, nekez eduki zitezkeen liburu apaletan ere, ez ziren eta inon aurkitzen.

Orain hiru urte, Kintana honela ari zitzaigun: «Maiz pentsatu dut Euskal Literatura, Platonen gogoko mundu zoragarritik landa, Euskal Literaturaren Historietan eta nonbaiteko norbaitzuen liburutegi preziatuetan omen dagoen zerbait dela, irakurle arruntak, oraintsu arte bederen, haren existentziaz bigarren eskuz zertxobait jakiteaz aski zuelarik, inoiz kritikalariek kondatzen zizkioten merituak zein okerrak pertsonalki konprobatzeko erarik gabe».

Tartasen *Ontsa hiltzeko bidea*-ren hitzaurrean irakurri genuen hori. Ongi dakigu, izan ere, zein zaila izan den guretzat «klasiko» deituak irakurri ahal izatea. Axular salbu, besteak ia eskurazinak

ziren, argitalpen eskurakorrik ez zegoelako. Planak egon dira, azken urteotan, klasikoak polliki-polliki argitara emanaz joateko. LURek zerbait egin zuen; JAKIN ere saiatu izan da. Baina orain artean ez ginen liburu bitxi pare batetatik pasa. Orain, bat-batean halako hamazazpi batera ikusita, txukun eta merke, liburu-apaleria apaindu baino zerbait gehiago egingo al dugu. Ez lukete falta behar euskaltzale bakar baten liburutegian.

Izan omen dira kritikaren batzuk. Eta, bai, hobe izango zen, oraingo idazkeran eta, baleude. Oraingo hau ez da oraindik behar dugun klasikoen argitalpen haundia, landua. Baina ederrena ederraren etsai: holako lanik hartu izan balitz, beldur gara berriz ere plan asko eta liburu gutitan geratu izango ginakeela. Aukera-aukeran, lan askorekin liburu eder-eder baina guti ateratzea baino hobeto iruditzen zaigu, zegoen-zegoenean liburu asko eta merke ateratzea, irakurleari lan piska bat gehiago kargatuz. Textuak, behintzat, badauzkagu orain: hori zen beharrezkoena.

Beharbada, argitalpenaren osagarri, separatatxo bat edo publikateke, kolekzioa buka dadinean, Autoreok eta obraok situatzeko, gauza apartik egitera sartu gabe: Autoreak noiz sortuak diren, non, zein girotan burutu dizuten beren lana; obrari buruz eman izan den bizpairu kritzi, etab. Kolekzioa borobilduko luke, nik uste; eta argitalpenaren balio praktikoa jasoko luke. ■ *Joxe Azurmendi*.